



Koldo Aldaz
Mendizalea

«Erreserbaren barruan ezin da lurrik mugitu, ezin da ezer eraiki, ezin da kirol antolaturik egin...»

Jesus Bueno

Ekonomilaria

«Gaur egun dagoen proiektua, ikuspuntu ekonomikotik helduta, zorrotzasunik gabea da erabat»

«Elurra ez da balore ziurra, eta are gutxiago urteotako joera ikusita»



Koldo Goñi
Nafarroako Federazioko presidentea

«Ez zaigu ondo iruditzen eremu babestu baten mugak komenientzien arabera aldatzea»



Angel Luis de Miguel
Izabako alkatea, Errokariko Batzordea

«Alpeetako Juran edo Frantziako Pirinioetan badira iraupeneko pistak babestutako eremuetan»

Jose Manuel Bescos

Izabako Lola ostatuko jabea

«Ibarreko jendeak egindako proiektua da, ibar osoak onartua. Bertakook badakigu ingurumena zaindu behar dugula, turismoa erakartzeko tresna nagusia baita. Kexak, berriz, kanpotik datoz»



Diego Bueno
Izabarra, Zain dezagun Larra plataforma

«Turismoa erakartzeko badugu nahikoa baliabide. Larrako aberastasuna ezin dugu galdu»

Larrako Erreserba Naturala, bihurgune helikoidalaren ingurutik ateratako argazkian. Ezkerrean Arlas eta eskuinean Anie.

Larra



Eski pisten proiektua eztabaidagai

Ramon Olasagasti

Edurne Elizondo - Ramon Olasagasti

Iraupen eskiko pista berriak egin nahi dituzte Larrako Erreserba Naturalaren barruan, La Contienda deritzan inguruan hain zuzen. Eta, horrekin batera, El Ferial deritzan guneko pistak eta azpiegiturak ere hobetu nahi dituzte: gaur egun Feriaren dagoen egurrezko etxola harrera etxe handi bihurtu eta errepedetik urrunago jarri, aparkalekua zabaldu, beste aparkaleku bat egin kurba helikoidalaren inguruetan, eskiatzeko hiru zirkuitu eta bost kilometro gehiago jarri... Hori guztia natura aldetik balio izugarria duen eremuan. Hortxe dago eztabaida.

Errokari Ibarreko Batzordeak bultzatuta lantalde batek egin zuen aurreproiektua, eta, ondoren, Batzordeak berak eman zion oniritzia eta azken bedekapena. Berehala piztu ziren alarmak eta segituan harrotu aurkako iritziak, bai ibarrean bertan eta bai kanpoan. Ahots kriti-

Larrako Erreserba Naturalean egin nahi duten iraupen eskiko pisten proiektuak eztabaida sortu du; herenegun, ekitaldi jendetsua egin zuten aurkakoek Planetarioan

koak—mendizale, naturzale, biologo eta abar—iaz bildu ziren *Zain dezagun Larra* plataforman. Nafarroako Mendizale Federazioak ere batzorde bat eratu zuen joan den urtean, gaia jarraitzeko. Eztabaida puri-purian da berriro, CDN alderdiak lege proposamen bat aurkeztuko baitu, aurki, Nafarroako Parlamentuan, Larrako Erreserba Naturalaren mugak aldatze aldera, proiektuari bide emate aldera, alegia.

Herenegun ekitaldi jendetsua egin zuten proiektuaren aurkakoek Iruñeko Planetarioan. Han izan ziren, besteak beste, David Guzman biologoa, Alfredo Rueda

Ekologistak Martxan elkarteko kidea eta Nafarroako Ingurumen Batzordeko kidea, Antxon Bandres Euskal Mendizale Federazioko presidentea, Gregorio Ariz eta Juanjo San Sebastian mendizaleak, Jesus Bueno ekonomilaria edota Javier Garreta zinemagile eta mendizalea.

Postura kontrajarriak ibarrean

Planetarioko ekitaldian zen Koldo Aldaz mendizalea ere. 13 urte bizi izan da Aldaz Errokarin; izugarri maite du ibar hura eta inguruko mendiak. Horregatik, tristoraz eta amorru puntu batez hartzen ditu

halako proiektuak. Ez, ordea, etsipenez. Borroka hau bururaino eramateko prest agertu da Aldaz. «Errokariren bilakaera nahi dut nik ere, baina Erreserba Naturala—ibarraren altxor nagusietakoa—zaindu eta babestu behar dugu».

Bestela pentsatzen du Angel Luis de Miguel Izabako alkate eta Errokarri Ibarreko Batzordeko kidea: «18 urte daromatragu eskolako umeen eski kanpainarekin, eta, egungo pistak eta azpiegiturak ez dira egokiak ipar eskiko estazio batarako. Sortu diren arazoak partxeatzen aritu gara orain artean, eta bada garaia Errokarin ipar eskiko zentro egoki bat

go
ral
Pr
ko
tur
ha
de
de
tze
ko
La
tur
tzo
gi
du
ar
ela
rat
ku
tu
Az
ta
na
es
eta
be
ra,

izate
goen
tien
tan e
bali
rako
lik e
egun
zula
so za
Al
tore
rak l
ren g
kete
Izab
nuel
agen
gau
Bela
gutx
tiori